



Juan Carlos Gomez Martinez ... Idazlea

«Kilikiak gaiztoak dira, Iruñean ezkutuan daude»

Jesus Carlos Gomez Martinezen ustez, kilikiak «garai hobe baten esperoan» daude orain Iruñean, jendeak euren bihurrikeriak eta okerkeriak ahaztuko dituen momentuaren zain, euren bihozgabekeria eta basakerietara itzultzeko. Hala ziurtatzen du behintzat *La historia secreta de los kilikis de Pamplona* (Iruñeko kilikien historia sekretua) kaleratu berri duen liburuan.

...

Jesus Carlos Gomez Martinez egile iruindarraren aburuz, Iruñeko kilikiak pertsonaia gaiztoak dira, jokoekin euren mal-

tzurkeria eta zitalkeria ezkutatzeko dituztenak. *La historia secreta de los kilikis de Pamplona* liburuan, umorez eta fantasiaz, Iruñeko pertsonaia ezagun horien iragana kontatzen —

asmatzen — du. Hala, lehendabizi, pertsonaia bakoitzaren irudia eskaintzen du Jesus Carlos Gomez Martinezek, eta azpian, bere bizitzaren azalpen laburra, zorrotza eta umoretsua.

■ Zerk bultzatu zintuen halako liburu bat idaztera, kilikien nondik norakoen ingurukoa?

Idea antzinatek nuen buruan. Egia esan, Caravinagre edo bere kideetako baten bat egunkarian, telebistan edo kalean ikusten nuen bakoitzean hauxe pentsatzen nuen: «Zenbat konta nezakeen hauei guztiei buruz!».

1998. urteko ekainean beste literatur proiektu batzuekin lanpetuta nengibilen, baina egunkari batek zutabe bat idaztea eskatu zidan, eta pentsatu izan nuen hura aukera ona zela pertsonaia horien inguruan idazten hasteko. Bi aste geroago, zutabea aurkeztu nuen; izenburua, *Caravinagre*. Orduan zin egin nion neure buruari liburu bate-

an bilduko nituela ordenagailuan geratu ziren ideia horiek guztiak.

■ Haurtzaroan, iruindar askok asmatu izan dizkiegu istorioak kilikiei. Zure liburua nahi edo behar horren isla da?

Agian bai. Agian haurtzarotik betetzeke neukan lana da hori. Txikitan, kilikiek erabat beldurtzen ninduten eta, sanfermine-

KILIKIAK

«Luziferren seme hauen lorpenik handiena izan da arriskutsuak ez direla sinetsaraztea»

Aitzina
Alde Zaharra

Ipargorri
Errotxapea Auzoa

Zurgai
Txantrea Auzoa

IRUÑEKO HERRIKOAK

ongi pasa

BASAJAUN OSTATUA

Euskal Presoak
EUSKAL HERRIRA

ROTXAPEA

Iruñeko
Herriko

Taberna
Karmen kalea, 34/36
948/22 28 28

BAZKARIAK, AFARIAK
eta BOKATAK ematen
ditugu

Mila esker etortzeagatik.